

AURREKONTUA	II. FASEKO ESKAERA EPEA
<p style="text-align: center;">95.000.000€</p> <p>Izaera lehiakorreko proiektuak: 45.000.000 € Izaera estrategikoko proiektuak: 50.000.000 €</p>	<p style="text-align: center;">2022ko irailaren 30etik 2022ko urriaren 21era</p>
PROIEKTUAK GAUZATZEKO ALDIA	LAGUNTZA MOTA
<p>Izaera lehiakorreko proiektuak: 2022 Izaera estrategikoko proiektuak: 2022 - 2024</p>	<p style="text-align: center;">Dirulaguntza</p>
HELBURUA	
<p>HAZITEK 2022 laguntza-programak euskal industria I+G proiektuen bidez indartzea du helburu, bi laguntza-ildo desberdinen bidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Laguntza izaera lehiakorreko proiektuei. • Laguntza izaera estrategikoko proiektuei. <p>Programak bi fase ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • I. Fasea. Proiektuen hautapena. Aurkezpena eta ebaluazio teknikoa. • II. Fasea: Dirulaguntzen esleipena. I. Fasean onartutako proiektuei laguntzak esleituko zaizkie. 	
ERAKUNDE ONURADUNAK ETA BALDINTZAK	
<ul style="list-style-type: none"> • Euskal enpresa, enpresa talde eta elkarteak, haien forma legala edozein dela ere. • Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko eragileak (ZTBES-RVCTI), Oinarri zientifiko eta Teknologikoko Enpresa Berrien kasuan (OTEB-NEBT). 	
FINANTZAKETAREN EZAUGARRIAK	
<p>Izaera lehiakorreko I+G proiektuak: I+Gko proiektu indibidualak edo kooperatiboak, produktu berriak garatzeko edo oinarri zientifiko eta teknologikoa duten enpresa berriak merkaturatzeko. Banaka edo bi erakunde onuradunen edo gehiagoren arteko lankidetzan egin ahal izango dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Proiektuek, gutxienez, 100.000 €-ko urteko aurrekontua izan beharko dute eta, lankidetzaproiektua bada, lankide den enpresa bakoitzak, gutxienez, 50.000 euroko urteko aurrekontua izan beharko du. • Dirulaguntza, gehienez, 250.000 €-koa izango da urteko eta erakunde onuradun bakoitzeko. <p>Sektore estrategikoetako ikerketa industrialeko eta garapen esperimentaleko proiektuak: jarduera-arlo zientifiko-teknologiko estrategikoak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskadi 2030 Planean ezarritako lehentasunen esparrukoak (industria adimenduna, energia garbiak eta osasun pertsonalizatua) edo Zeharkako Ekimen Eragileen esparrukoak (zahartze osasungarria, mugikortasun elektrikoa eta ekonomia zirkularra) izango dira.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Proiektuek, gutxienez, 4M €-ko urteko aurrekontua izan beharko dute. • Iraupena gehienez: 3 urte. • Talde horiek, gutxienez, hiru enpresaz osaturik egon beharko dute, eta, beren artean lankidetzan aritzeaz gain, ZTBES-RVCTI eragileekin lankidetzan aritu beharko dira, azpikontrataturik, gutxienez % 20ko partaidetzarekin. • Enpresa bakoitzeko urteko gutxienerako aurrekontua: 50.000 €. <p>Proiektu estrategiko batean ez bada beste 2 enpresarekin edo ZTBESko eragile batekin lankidetzan aritzen, proiektu estrategiko berezitat hartuko da.</p> <p>Honako hauek aldi berean betetzen direnean aukeratuko da proiektu bat: (i) ebaluazioan lortutako guztizko nota guztizko nota maximoaren % 50 edo handiagoa denean, eta (ii) gako-irizpide bakoitzean lortutako guztizko nota gako-irizpide horri dagokion nota maximoaren % 40 edo handiagoa denean. Kasu horretan, laguntzaren intentsitatea ehuneko hauetara iritsi ahal izango da:</p>	

	Ikerketa industrialeko proiektuak	Garapen esperimentaleko proiektuak
Izaera lehiakorreko proiektuak	% 30*	% 25*
Izaera estrategikoko proiektuak	% 40	% 25

Ikerketa industrialeko proiektu batek guztizko gehieneko notaren % 50 edo gehiago lortzen badu eta gako-irizpideetan lortutako nota guztizko nota maximoaren % 50 edo handiagoa bada, kasu horretan laguntzaren kopurua honako ehuneko hauetara iritsi daiteke:

	Ikerketa industrialeko proiektuak	Garapen esperimentaleko proiektuak
Izaera lehiakorreko proiektuak	% 40*	% 25*
Izaera estrategikoko proiektuak	% 50	% 25

*Estatuz gaindiko lankidetzako proiektuek, ERANET egitasmoek: diruz lagun daitezkeen gastuetan % 5 gehiago lor dezakete, baldin eta enpresa batek ere ez badu diruz lagun daitezkeen gastuen % 70 baino gehiago bere gain hartzen.

FINANTZA DAITEZKEEN KONTZEPTUAK

- Langileen zuzeneko kostuak.
- Zeharkako kostuak, betiere kostu sinplifikatuen sistema aplikatuta .
- Kanpo-aholkularitzaren eta zerbitzu baliokideen kostuak .
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko eragileak (ZTBES-RVCTI), azpikontratatzeko gastuak (edonola ere, **partaidetza hori, orotara, aurkeztutako aurrekontuaren % 20koa izango da**, gutxienez).
- Proiektura eskusiboki bideratutako aholkularitzaren eta zerbitzu baliokideen gastuak (**kontu-ikuskapenaren kostua barne**).
- ETEentzako jabetza-eskubide industrialen kostuak.
- Ustiapen-gastuak (hala nola materialen eta hornikuntzen kostuak), ikerketa-jardueraren ondorioz zuzenean sortutakoak.
- Ikerketa-jardueran soilik eta era jarraituan erabilitako ekipamendu eta instrumentuen kostuen amortizazioa.

BESTELAKO DATUAK

- Norgehiagoka-prozedura.
- Laguntzak pizgarri izan daitezen, erakunde eskatzaileak laguntza eskatzen duen datatik aurrera abiarazi beharko dira.
- Eskualde Garapeneko Europako Funtsak lagundurik finantzatzen diren dirulaguntzak (EGEF-FEDER).